

# Egoeraren Azterketa



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**Enpleguak gora egiten du  
eta langabeziak behera, baina...**

**...txapeldunak gara prekarietatean,  
aldibaterako lanean,  
lanaldi partzialeko kontratuetan  
eta langabezia mota guztietan**

**Emakume langileen egoera  
kaxkarragoa da oraindik ere**

**Alokairuek gora egiten dute  
eta okupatu gabeko etxebizitza  
asko dago**




## Langabezia behera doa

INEk dioenez, 2018ko lehen hiruhilekoan 142.700 lagun langabezia ibili direla estimatzen du, aurreko urteko epealdi berean baino 9.200 gutxiago.

Hego Euskal Herria osotasunean hartuz gero langabezia datua beherantzkoa da, baina erkidegoka analizatzean, ikusiko dugu Nafarroan 1.000 (32.500) langabegehiago daudela eta EAEn 10.200 gutxiago (110.200).

98.700 langabe gutxiago daude orain 2003an baino.



## Alokairuak gora

Azken urteetan alokairuaren prezioaren gorakada bat bilakatu da Hego Euskal Herrian. 90. hamarkadaren erdialdetik 2007ra arte etxebizitzaren prezioek izugarriko gorakada izan zuten, jakin badakigu sekulako burbuila sortarazi zuela igoera honek.

Hala ere, oraindik garestiak izaten jarraitzen dute, izan ere, berriki publikatu diren datuen arabera, EAEk Espainiar estatuko erabiltako etxebizitza garestiena du.

Hau guzti hau, etxebizitzaren erosketan prezioa jaisten zioan bitartean.



## Aldibaterako kontratuetan buru

Tenporalitateari dagokionez Europako laugarren maila altiena dugu (%23,9), Poloniaren (%25,5), Estatu espainiarren (%26,8) eta Montenegroren atzetik.

Kontrako aldean, tenporalitate baxuena duten lurraldeak Errumania (%1,2) eta Baltikoko estatuak dira (Lituania buru, %1,4rekin).

Europar Batasuneko batez bestekoa %14,3 da, Hego Euskal Herrikoa baino ehuneko 9,6 gutxiago.



# Aurkibidea

## EGOERAREN AZTERKETA

1. Enpleguak gora egin du.....4
2. 2009tik zerbitzuetan hazi da enplegua, beste sektoreetan gutxitu dira.....4
3. Kontratazioak prekaritatea eta diskriminazioa hedatzen ditu ...5
4. Langabezia murriztu da EAEn,Nafarroan, aldiz, igo .....6
5. Biztanleria aktiboa azken urteetako txikiena .....6
6. Genero diskriminazioak berdin jarraitzen du .....6
7. Europako azken postuetan gaude .....7
8. Prestazioak behera doaz.....9
9. BPGk handitzen jarraitzen du .....9

## HILAREN PUNTAKO GAIA:

### Alokairuaren burbuila ote dator?

## ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
BPG	Barne Produktu Gordina
BAI/EPA	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
EIN/INE	Estatistika Institutu Nazionala

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A

## Sarrera

2017ko urtean bezala, adierazle makroekonomikoak errekupeazioaren seinale dira. Enpleguak gora egin du, langabezia murriztu egin da, BPGk igotzen jarraitzen du, etab. Hori ikusita, nola da posible jendarte gehiengoaren baliabide ekonomikoak berdin edota txarrago jarraitzea?

Adierazleak hobetzen doazela ezin da ukatu, baina prekarizazio egoerak berean jarraitzen du. 2008. urteko krisi aurretik langileriaren baldintza materialak behera egin dute, eros ahalmena murriztu egin da eta langileriaren lan baldintzak urratuak izan dira. Orduan, errekupeazioa baldin badago, jakinda desberdintasunak areagotu direla, errekupeazio hori norentzat izan ote da?


Hurrengo orrietan, aipatutako adierazleen bilakaera errepatatuko dugu, baita ere emakumeek pairatzen duten diskriminazioa gogora ekarri eta alokairuaren prezioaren nondik norakoak ikusiko ditugu, besteak beste.

\* Txosten hau 2018ko **ekainaren 14ean** eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

## 1. Enpleguak gora egin du

2018ko lehen hiruhilekoan 1.189.400 pertsonen enplegua izan dute Hego Euskal Herrian EParen arabera (INEk egindako inkesta). Aurreko urtearekin alderatuta, estimaturiko enplegua 19.000 lagunetan hazi da. Lehen hiruhilekoaren enpleguaren joerari erreparatuz, hurrengo grafikoan adierazita ikusi dezakegu 2014ko minimotik hazi egin dela; 2009tik ordura arte gutxitu egin zen urterik urte.

### HEHko enpleguaren estimazioaren bilakaera 2009-2018



Iturria: INE

2018an enplegua izan dutenen artean, 276.100 Nafarroakoak dira eta 913.300 EAEkoak. Lehen erkidegoan 1.000 pertsonatan bakarrik igo da biztanleria okupatuaren zenbatekoa, bigarrenan, aldiz, gorakada nabariagoa izan da, hain zuzen, 18.900ean egin du gora. Sexuari dagokionez, desberdintasunak existitzen jarraitzen du, 562.900 emakumeak dira eta 626.500 gizonak.

Gazteen artean (16 eta 24 urte artekoak), enplegua 50.400 pertsonakoa izan da, aurreko urtean baino 6.300 gehiago. Horietatik, 14.100 Nafarroan eta 36.300 EAEn; 28.800 gizonak eta 21.500 emakumeak. Gazteen enplegua ere hazten dabil 2014az geroztik, orduan 32.500ek baitzuten enplegua; baina, oraindik ere, 2009ko mailatik urruti jarraitzen du, urte hartan 74.900 baitzeuden.

## 2. 2009tik zerbitzuetan hazi da enplegua, beste sektoreetan gutxitu dira

Sektoreei erreparatuz, lehenengo sektorean biztanleria okupatuaren %1,8 (21.400 pertsona) aritu da 2018ko lehen hiruhilekoan, eraikuntzan %5,2 (62.000 lagun), industrian %23,3 (277.200) eta zerbitzuetan %69,7 (829.000). Pasadan urteko datuekin alderatuz, nekazaritza izan da biztanleria okupatua murriztu den sektore bakarra, eta besteetan mantendu edo igo egin da. Aldiz, 2009tik gaur egunera arteko bilakaerak argi erakusten du zerbitzuen gorakada eta bai nekazaritzaren, industriaren, zein eraikuntzaren gutxitzea. Lehena da langile kopuruan gora egin duen bakarra (duela bederatzita baino 26.600 gehiago daude), nekazaritzak eta industriak aldiz, beheranzko joera dute (batez ere EAEn) eta 2009tik eraikuntzan ia erdira murriztu da biztanleria okupatuaren kopurua.

### Enplegua sektoreka HEHn

	2018ko 1hh		2013ko 1hh		2009 1hh	
	Pertsona	%	Pertsona	%	Pertsona	%
Nekazaritza	21.400	1,8	29.500	2,6	28.500	2,3
Eraikuntza	62.000	5,2	70.700	6,2	113.000	9,1
Industria	277.200	23,3	247.100	21,7	303.000	24,3
Zerbitzuak	829.000	69,7	790.000	69,5	802.400	64,3
Guztira	1.189.400	100	1.137.400	100	1.247.000	100

Iturria: INE

Zerbitzuetan izan ezik, beste hiru sektoreetan gizonak gehiago dira: nekazaritzan %73,36, eraikuntzan %89,03 eta industrian %76,15. Zerbitzuetan, ordea, emakumeak biztanleria okupatuaren %58,4 dira. Gazteen artean ezberdintasun horiek nabarmenago ematen dira, eta aldeak nabariagoak dira gizonak gehiago diren sektorretan. Nekazari eta eraikuntza sektoreko gazte guztiak gizonak dira. Horretaz gain, industrian dabilzanen %89 ere gizonezkoak dira, zerbitzu sektorea da emakumeak gehiago diren bakarrak, %59,5.

Enplegua dutenen artean, 1.012.100 soldatapeko langileak dira, aurreko urtean baino 12.900 gehiago. Azken bederatzita urteetako datu baxuen eta altuenarekin alderatzean, 2014an baino 88.800



soldatapeko gehiago, baina 2011an baino 34.300 gutxiago dago HEHn. Soldatapekoetatik, 232.100 Nafarroakoak eta 780.000 EAEkoak dira.

Gazteen artean, 48.200 soldatapeko langile daude, aurreko urtean baino 5.600 gehiago. Gorakada hau pasa den urtekoa baino baxuagoa da. Datu baxu eta altuenak, kasu honetan, 2009 eta 2014 urtekoak dira, hurrenez hurren. Horrela, 2009ko lehen hiruhilekoan baino 23.300 soldatapeko gazte gutxiago egon da, baina 2014koan baino 19.200 gehiago.

Biztanleria okupatuaren %85,1 soldatapeko langileria da (gizonen %81,5 eta emakumeen %89). Gazteen artean, enpleguen %95,6 soldatapekoa da (gizonen %93,1 eta emakumeen %99,1).

### 3. Kontratazioak prekaritatea eta diskriminazioa hedatzen ditu

Kontratazioaren analisiak desberdintasunak areagotzen daudela erakusten digu. Atal hau bi azpiataletan sailkatu dugu, batetik, kontratu berrien analisia eta bestetik, existitzen diren kontratu guztien analisia.

#### a) 2018ko lehen hiruhilekoan egondako kontratu berriak

2018ko lehen hiru hilabeteetan HEHn egin diren 311.854 kontratu ingurutik 122.700 lanaldi partzialekoak izan dira (%39) eta 284.200 aldi-baterakoak (%91,1); gogora dezagun kontratu partzialak aldi-baterakoak direla hein handi batean.

Baina kontratazioan ematen den aldi-baterakotasuna oso parekoa bada ere gizon eta emakumeen artean (1,1 ehuneko punturen ezberdintasuna dago emakumeen aurka), partzialitatea bikoitza da emakumeengan: gizonen egiten zaizkien kontratuen %23 dira partzialak, emakumeen egiten zaizkienak berriz, %48,3.

#### Kontratazioa HEHn 2018ko lehen hiruhilekoan

	Kontratuak	Tenporalitatea	Partzialak
Orokorra	311.854	%91,1	%39,0
Gizonak	154.295	%90,6	%23,0
Emakumeak	157.559	%91,7	%48,3

Iturria: SEPE

Bai EAEn zein Nafarroan antzerako datuak antzeman ditzakegu. Partzialitateari dagokionez, EAEn %39,9 eta Nafarroan %37,9, baita tenporalitateari erreparatuz EAEn %90,6 eta Nafarroan %92,4. Muturretara joz gero, sekulako desberdintasuna aurkitu dezakegu, EAEko emakumeen kasuan partzialitatea %53,1ekoa da kontratazioan, Nafarroako gizonena %16,7 den bitartean.

#### b) 2018 lehen hiruhilekoan dauden kontratuak

2018ko lehen hiruhilekoan soldatapekoen %23,6 aldi-baterako kontratu batekin aritu da Nafarroan eta EAEn %25,9. Guztira 256.600 pertsona (biztanleria soldatapekoaren %25,4) egoera honetan dago HEHn. Alor honetan ere, emakumeek gizonek baino prekaritate maila larriagoa pairatzen dute: 2018ko lehen laurdenean Hego Euskal Herriko emakumeen %27,8 aldi-baterako kontratu batekin aritu da, eta gizonen artean %23a. Nafarroan aldi-baterakotasuna EAEn baino ehuneko puntu bat inguru baxuagoa bada ere, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak oso parekoak dira bi erkidegoetan.

Biztanleria okupatuaren %17,2 jardunaldi murriztarekin ibili da lanean 2018ko lehen hiru hilabeteetan; aurreko urtean baino %1 gutxiago, baina 2009an baino %3,1 gehiago. Nabarmena da oso, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna atal honetan: gizonen %7,2ko partzialitatea pairatzen dute, emakumeena %28,4koa den bitartean.

## 4. Langabezia murriztu da EAEn, Nafarroan, aldiz, igo


Langabezi tasa analizatzeko orduan, bi datu desberdin ditugu, batetik INEk (Instituto Nacional de Estadística) emandako estimazioa eta bestetik SEPEk (Servicio Público de Empleo Estatal) erregistratutako datua daukagu.

Langabezia maila %10,7an kokatu da 2018ko lehen hiru hilabeteetan (%10,5 Nafarroan eta %10,8 EAEn). Langabezia tasak behera egin du aurreko urtearekiko 0,7 ehuneko puntutan eta 2013ko marka gorenetik aldentzen da (orduan %17,5 izan baitzen), honela 2009ko tasara hurbilduz (%10,6).

INEk emandako datuei erreparatzen badiogu, 2018ko lehen hiruhilekoan 142.700 lagun langabezian ibili direla estimatzen du, aurreko urteko epealdi berean baino 9.200 gutxiago. Hego Euskal Herria osotasunean hartuz gero langabezia datua beheranzkoa da, baina erkidegoka analizatzean, ikusiko dugu Nafarroan 1.000 (32.500) langabe gehiago daudela eta EAEn 10.200 gutxiago (110.200). 2013ko datuarekin alderatzean (azken urteotako maila altuena eman zen lehen hiruhilekoarekin, hain zuzen) 98.700 langabe gutxiago daude orain.

SEPEn erregistratutako langabeziaren zifrak, ordea, adierazten dute batez bestean 163.793 pertsona egon direla 2018ko lehen hiru hilabeteetan. Beraz, aurreko urtearekin alderatuz 15.798 langabe gutxiago daude. Maila altueneko langabeziarekin alderatzean, hots 2013koarekin, langabezian izen emandakoen kopuruak behera egin du eta 69.952 pertsona gutxiago dago langabezian.

### Langabeziaren bilakaera 2009-2018



Iturria: INE, SEPE

Lehen puntuan ikusi daitekeen moduan, gizon gehiago daude enpleguarekin emakumeak baino. Era berean, langabezian dauden gehienak ere gizonezkoak dira: 69.700 emakume daude langabezian eta 73.000 gizon. Aipatzekoa da, emakumeen kasuan eman den beherakada, pasadan urtean 80.300 baitzen, gizonezkoetan 1.400 pertsonako gorakada emanez.

Gazteen artean, 19.300 langabe egon dira aurten, aurreko urtean baino 100 gutxiago. Hala ere, %27,7ko langabezia suposatzen du zenbateko honek, aurreko urtekoa baino ehuneko 2,8 puntu txikiagoa eta 2014ko maximotik (%50,2 izan zen) urrunduz doa, nahiz eta tasa handia izan oraindik. Erkidegoka ikusiz gero oso antzeko datuak hauteman ditzakegu, Nafarroan (%28,2) EAEn (%27,8). Sexuari erreparatuz, gazteei dagokionez, langabezia gizonezkoak emakumeak baino gutxiago pairatzen dute.

Langabezian egon direnen %53,3ak (76.100 pertsonak) urtebete baino gehiago eman du egoera latz horretan, 2017ko lehen hiruhilekoan baino %4,5 (11.700) gutxiago. 2009an, aldiz, epe luzeko langabezia soil-soilik %19,2koa zen eta haziz joan zen 2014an %61,9ra iritsi arte. Lurraldeka, Nafarroan epe luzeko langabezia %43,7koa da eta EAEn %56,2koa.

## 5. Biztanleria aktiboa azken urteetako txikiena

Langabezian dagoen biztanleria eta okupaturik dagoena hartzen ditu kontutan biztanleria aktiboak. Zenbateko hau 1.322.100 pertsonatakoa izan da hiruhilabeteko honetan Hego Euskal Herrian. Azken bederatzi urteetako kopuru txikiena da (2011an baino 79.600 txikiagoa).

Gazteen artean, biztanleria aktiboa 69.700 pertsonak osotzen dute, kopurua aurreko urtekoa baino 6.100 handiagoa da, baina 2009an baino 36.200 pertsona murriztagoa.

## 6. Genero diskriminazioak berdin jarraitzen du

Zifra asko adierazi dira emakumeak pairatzen duten diskriminazioa ikustarazten dutenak. Horregatik uste dugu beharrezkoa dela seinaltzea eta salatzea emakumeen gaur



eguneko egoera. Adierazi diren datuez gain, egon badaude beste adierazle anitz, esaterako, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak langabezia tasa orokorrari dagokionez (gizonena %10,4 da eta emakumeen %11); bai gazteen artean (gizonena %26,7 da eta emakumeena %29,7).


### Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak 2018ko 1.hh

	Langabezia	Gazteen langabezia	Tenporalitatea	Partzialitatea
Orokorra	10,8%	27,7%	23,9%	17,2%
Gizonak	10,4%	26,7%	22,3%	7,2%
Emakumeak	11,0%	29,7%	25,7%	28,4%

Iturria: INE

## 7. Europako azken postuetan gaude

### EB-28ko tenporalitate tasa, 2017ko 4.hh.




Iturria: Eurostat, INE

Europako estatuen klasifikazioa eginik Hego Euskal Herriko egoera azken postuetan azaleratzen da. Horrela, tenporalitateari dagokionez Europako laugarren maila altuena

dugu (%23,9), Poloniaren (%25,5), Estatu espainiarraren (%26,8) eta Montenegroren atzetik. Kontrako aldean, tenporalitate baxuena duten lurraldeak Errumania (%1,2) eta Baltikoko estatuak dira (Lituania buru, %1,4rekin). Europar Batasuneko batez bestekoa %14,3 da, Hego Euskal Herrikoa baino ehuneko 9,6 gutxiago.

Antzera gertatzen da langabeziari dagokionez: Hego Euskal Herriko langabezia maila (%10,4) kontinenteko seigarren okerreana da. Egoera latzagoa Greziak (%21,2), Estatu espainiarrak (%16,6), Italiak (%11,2), Kroaziak (%10,9) dute. Europar Batasuneko batez bestekoa %7,3 da eta langabezia maila baxuenak dituzten estatuak Txekia (%2,4), Islandia (%2,6) eta Alemania (%3,5) dira, hirurek dute %4 baina langabezia tasa txikiagoa.


### EB-28ko langabezia maila, 2017ko 4.hh



Iturria: Eurostat, INE

Gazte langabezia mailan ere seigarren postu okerreanean kokatzen da HEH (%25,3), Europako batez bestekotik (%16,2) urrun. Egoera latzena Greziak (%43,6), Estatu espainiarrak (%37,5) eta Montenegrok (%36,7) dute, hirurek dute %40 inguruko gazte langabezia tasa. Maila txikiak Alemaniak (%6,1), Islandiak (%2,6) eta Txekiak (%6,3) dituzte.


## EB-28ko gazte langabezia tasa, 2017ko 4.hh



Iturria: Eurostat, INE

Epe-luzeko langabeziari erreparatuz, Hego Euskal Herrikoa EB-28ko seigarren altuena dela agerian geratzen da. 2017ko azken hiruhilekoan %52,6koa izan zen gurean, nabarmentzekoa da Nafarroan(%41,5) eta EAEn (%55,7) egon zen aldea. Grezia (%71,8), Eslovakia (%62,9) eta Italiaren (%58,2) ostean; EAEkoa altuena izan zen. EB-28ko batez besteko maila %44,5koa izan zen, egoera hoberena Suedia eta Turkian eman zen, %20,6 eta %22,8koa izan zen, hain zuzen.


## Epe-luzeko langabezia tasa. EB-2017ko 4.hh



Iturria: Eurostat, INE

Ondorengo grafikoak orain arte ikusitako HEH eta EB-28 herrialdeetan dagoen gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna hainbat adierazletan (aldi-baterakotasuna, partzialitatea, langabezia, gazte langabezia eta epe luzeko langabezia tasa) islatzen du.

## Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak HEH eta EB-28n, 2017ko 4.hh



Iturria: INE, Eurostat

Grafikoan agerienez, 2017ko azken hiruhilekoan Hego Euskal Herriko egoera okerragoa zen EB-28ko batez bestekoarekiko alor guztietan partzialitate mailan izan ezik. Horretaz gain,






emakumeen egoera gizonena baino txarragoa izan zen bi lurralde eremuetan tenporalitate, partzialitate eta langabezia tasei zegokienez, baina batez ere gazte langabeziari dagokionez. Epe luzeko langabezia tasa gizonetzkoak ehuneko handiagoa zuten.

## 8. Prestazioak behera doaz

2018ko martxoan HEHn langabezia egoeran egon ziren 163.074 pertsonetatik %62,1ek ez zuen inolako prestaziorik jaso, 36.531ek kontribuzio-mailako prestazioak jaso zituzten eta 25.319k kontribuzioak ez direnak. Gainera, prestazioen hartzaile bakoitzeko batez besteko gastua 1.067,51 eurotako izan zen, azken urteetako datu txikienetakoa.

Ondorengo grafikoak egoera hori eta azken urteetan izan duen bilakaera erakusten du. Bertan ikusten da 2018ko martxoan 101.224 langabe inolako prestaziorik gabe geratu zirela; alderaketa gisa, 2013ko martxoan 109.900 langabe egon ziren prestaziorik jaso gabe, baina urte hartan kontribuzio mailako prestazioak jaso zituztenen kopurua (77.632) 2018koaren bikoitza baino handiagoa da.

### Hartzaileko eta langabeko prestazioen batezbesteko gastua eta langabeak estaldu-ra motaren arabera HEHn martxoan



Iturria: SEPE

Prestazioen hartzaileko batez besteko gastuaren bilakaera beherakorra izan da 2009tik 2017arte, azkeneko urtean nolabaiteko igoera apala egon da, 1.046,3tik 1.067,5era hain zuzen. Hala ere 1289,1 euroetatik (2009) urruti jarraitzen du. Prestazioen estaldura joerak beheranzko joerarekin jarraitzen du: 2010eko martxoan langabeen %32,5 zegoen prestaziorik jaso gabe, 2011an %43 eta 2014an %51,3. Jada, lehen esan bezala, %62,1era handitu da.

Orotara aurtengo martxoan bideratu den gastua prestazio mota hauetan 66 milioi eurotako izan da, langabe bakoitzeko 404,9 euro. 2010eko hilabete berean bikoitza (146,3 milioi euro) bideratu zen antzeko langabe kopurua zegoelarik; hortaz, 2010eko martxoan langabeko gastua 831,59 eurokoa izan zen, 2018koaren bikoitza baino gehiago.

## 9. BPGk handitzen jarraitzen du

Barne Produktu Gordina hazkunde garrantzitsua izaten ari da Hego Euskal Herrian. Zehazki, 2018ko lehen hiruhilekoan aurreko urteko epealdi berean baino %3,1 inguru handiagoa da: %3,1 hazi baita EAEn eta %3,3 Nafarroan. Ez hori bakarrik, aurreko hiruhilekoetan ere hazkunde garrantzitsuak eman dira ekonomiaren moneta balio ofizialean: 2016az geroztik %3aren baitan kokatu dira bi erkidegoetako BPGaren hazkundeak.

### BPGaren urte arteko hazkundera

	2017				2018
Hiruhilabetea	I	II	III	IV	I
EAE	2,8	2,9	3	3	3,1
Nafarroa	3,1	3,3	3,2	3,2	3,3

Iturria: Eustat, IEN


# Hilaren puntako gaia: Alokairuaren burbuila ote dator?

Azken urteetan alokairuaren prezioak goranzko bilakaera izan du Hego Euskal Herrian. Honek orain dela urte batzuetako egoera dakarkigu burura, hain zuzen 2007. urtera arte gertatutakoa. 90. hamarkadaren erdialdetik etxebizitzaren prezioek izugarriko gorakada izan zuten, jakin badakigu sekulako burbuila sortarazi zuela igoera honek. 2008an burbuila hau desegin zen eta krisiaren lehen aztarnak azaleratzen hasi zirenean etxebizitza hauen prezioa murrizten hasi zen gaur egunera arte. Hala ere, oraindik garestiak izaten jarraitzen dute, izan ere, berriki publikatu diren datuen arabera, EAEk Espainiar estatuko erabilitako etxebizitza garestiena du.

Etxebizitzaren erosketa prezioa behera zioan bitartean, alokairuarenak ez du bilakaera berdina izan. Azken urteetako joera oso gorakorra izan da eta existitzen zen arazoa larriagotu du. 2016ko EAEko pobrezia eta desberdintasun sozialen inkestak adierazi zuen 113.629 pertsonak ezin izan zutela independizatu baliabide ekonomikoaren faltagatik. Zenbateko hau %13 igo da azken lau urteotan, demografikoki gazteen pertsona kopurua murriztu izan den arren. Hortaz, bistakoa da etxebizitza bat izateko behararen asetzea gero eta handiago dela. Pertsona eta familia asko dira etxebizitza bat izateko aukera ez dutenak, gazteen egoera prekarioak eta honek eragiten dituen errekurso faltak, gero eta beranduago independizatzerara behartzen ditu gazteak.

Hurrengo grafikoan alokairuaren prezioak EAEn izandako bilakaera ikusi daiteke. 2009tik aurrera gorabeherak izan ditu, baina 2013tik joera gorakorra dela ikusi dezakegu. 2018ko lehen hiruhilabeteko datuek honakoa adierazten dute: 952,2 eurotako dela alokairuaren hilabeteko prezioa, bai Gipuzkoan zein Bizkaian bere maximo historikoari gerturatzen dabiltza. Badaude leku batzuk gainditu dituztenak maximo historiko horiek (Donostian adibidez, hilabetearen batez besteko 1.057 euro ordaintzen da). Etxebizitza beharra duten pertsonen artean, %15ek bakarrik ahal dezake aurre egin alokairuak suposatzen duen ordainketari.

## Alokairuaren batez besteko prezioa hilabetero




Iturria: Eusko Jaurlaritza

Babes sozialeko alokairuari dagokionez, azken 10 urteei erreparatzen badiogu, krisi ekonomikoan murgilduta, alokairu honen prezioak gorakada garrantzitsua izan du. 2008ko babes sozialeko hilabeteko alokairuaren batez bestekoa 194,1 eurokoa zen. 2017ko datua, aldiz, 329,1 eurokoa. %69,5eko gorakada honek beharizan handiena duten familien eta pertsonen egoera erabat kaltearazi du, gehien eta gutxien dutenen arteko desberdintasunak gero eta gehiago handituz.

Hurrengo grafikoan oso argi ikusten den bezala, alokairuak bai EAEn zein Nafarroan pisu oso txikia du Europako beste herrialdeekin alderatuta. Hego Euskal Herriko etxebizitzaren %11,7 inguru bakarrik daude alokairu egoeran; Europako batez bestekoa den 30,7%tik urrun eta are urrunago Alemaniako %48,3tik. Alokairuaren eskaintza oso murrizta ez ezik, hauen prezio oso altuak, etxebizitza izateko aukera hau zail egiten du. Konklusio moduan atera dezakegu Euskal Instituzioek jabetzako etxebizitzak lehenesten dituela alokairuarena beharrean.



## Alokairuaren pisua Europako estatuetan 2016 urtean



Iturria: INE

Adierazitako datuak ikusita ulergaitza da etxebizitza hutsekin gertatzen dena. 2015eko hutsik zeuden etxebizitzaren estatistikei erreparatuz, EAEn 86.325 etxebizitza huts zenbatu zituzten, zifra hau eraikitako etxebizitzaren %8,3 zen. Horietatik 58.697 bizilagun gabeko etxe iraunkorrak ziren eta gainontzekoak denboraldikoak. Araba izan zen etxebizitza huts tasa handiena izan zuena EAEn, (%11koa hain zuzen), Gipuzkoak (%8,9) eta Bizkaiak (%7,1) jarraiki.

Dimentsio handiko udaletan, intzidentzia hau handitu egin zen 2013tik 2015era. EAeko hiru hiriburuetan gertatu zen hau. 2015ean etxebizitza hutsak gero eta gehiago ziren bai Donostin (%6,7tik %7,6ra), zein Bilbon (%3,2tik %5era). Gasteizen, aldiz, %6,5etik %6ra murriztu zen.

Aipatutako guztiagatik, Euskal Instituzioek erantzukizun zuzena dute, errealitate hau abordatu beharrean, politika publikoen tendentzia hurrengoan izan delako: zeharo urriak ziren laguntza eta prestazio programetan apostua egitea. Programa horiek ez zuten betetzen lehentasunezko gaia izan beharko lukeen etxebizitza izateko eskubidearen bermea.

Beraz, beharrezkoa da aldaketa estrukturala egitea etxebizitzaren arloan. Batetik, azken urteotako egoera ikusita, lehenetsi egin behar da alokairua, jabetza bera baino. Hartu behar diren neurrien artean nabarmendu behar da, EHko Eskubide Sozialen Kartaren Herri Ekimen Legegileak proposatzen duena (zeina ELA partaide den). HELk planteatzen du instituzioen betekizuna dela alokairu sozialeko etxebizitza baten sarbidea bermatzea pertsona guztiei, era berean ezartzen du eskubide hori ez dadila inoiz ordezkatu prestazio ekonomiko batengatik.



Lined writing area with horizontal dashed lines.